


ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2006KO MARTXOA

Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %0,3 igo ziren 2006ko martxoan

Azken hamabi hilabeteetan (2005eko martxotik 2006ko martxora) eraikuntzaren kostuak %2,9 igo ziren.

EUSTATEN datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntzaren kostuen indizeak %0,3ko igoera izan zuen 2006ko martxoan, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %2,9raino igo zen. Aurreko urteko abenduaren aldean 2006ko lehenengo hiruhilekoan eman den gehikuntza %2,9koa da.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2006



(*) Hazkundera martxoko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2006ko martxoan lanekuaren kostuak ez zuen inolako aldaketarik izan (%0,0), aitzitik lehengaien kostuek %0,4ko igoera izan zuten.

Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten; bai eraikuntzak bai obra zibilerako lehengaien kostuek %0,4ko gehikuntza izan zuten aurreko hilabetearen aldean. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran argi ikusten da ibilbide oso antzekoak zituztela: eraikuntzako lehengaien kostuak %2,4 igo ziren, eta obra zibilekoak %2,5.

Martxoan, prezioaren hazkunde handienak, besteak beste, petrolioaren eratorrietan (%2,6), asfaltozko produktueta (%2,6), beiran (%2,3), energia elektrikoan (%1,9) eta burdina eta altzairuan (%1,9) kontsumitutako lehengaietan eman ziren. Ondoko hauetako lehengaien prezioak, berriz, gutxitu egin ziren: karea, igeltsua eta eskaiola (%-2,9), metalezko tutueriak (%-0,6), zementu artifiziala (%-0,5), beste gai metaliko batzuk (%-0,4) eta egiturak eta galdaragintza (%-0,2).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan zituztenak ondokoak izan ziren: asfaltozko produktuak (%20,2), petrolioaren eratorriak (%18,1), energia elektrikoa (%8,5), beira (%7,3) eta zementu artifiziala (%4,1). Bestalde, ondoko hauen lehengaien urte arteko prezioak (2005eko martxotik 2006ko martxora) murriztu egin dira: metalezko tutueriak (%-5,0), plastikozko tutueria (%-1,6) eta karea, igeltsua eta eskaiola (%-0,8).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2006KO MARTXOA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	122,8	0,3	2,9	2,9	
ERAIKINAK	122,7	0,3	2,9	2,9	
OBRA ZIBILA	123,1	0,3	3,1	2,8	
LEHENGAIEN KOSTUA	119,2	0,4	2,5	2,4	
ERAIKINAK	119,2	0,4	2,4	2,4	
OBRA ZIBILA	118,8	0,4	2,5	2,1	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	131,1	0,0	4,0	4,0	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp